

Lanaldiko goizeko partean 2 orduko euskara ikastarora doazenen joan-etorriak: oztopo lasterketa

2014-215 ikasturtea estreinatu berritan, kontu hori, egun, honelaxe dago: deialdiak dio "Goizeko lanorduetako 2 orduko ikastaroa egingo duen langileak behar duen denbora izango du euskaltegitik lantokira itzultzeko (gehienez 20 minutu; 8:00-10:20 oro har)." Horren ondorioz, ulertu behar da sailak ez duela onartzen klasera joateko beharrezkoa den denbora eta errekuiperatzeko eskatzen duela 07:30an fitxatuz gero; berdin jokutzen du euskaltegitik itzultzeko 20 minututik gora beharrezkoa den denbora tartearekin. Denbora muga hori kasuan kasukoetara egokitzea eta joanaldia ere agertzea hitzez hitz deialdietan alegatu ohi dugu; ikusten denez, inolako arrastarik gabe.

Igaro den astean, Jon Uriarteri eta Begoña Otazuari agerian jarri genien LABekook (haiek hainbatetan eskatu bezala, posta elektronikoz) kontu honi konponbidea bilatzeko beharra. Orain arte ez dugu erantzunik jaso. Oharrean esaten genien, horrela jokaturik, langile askori gaindiezinezko oztopo jartzen zietela lanaldia familia bizitzarekin eta norberarenarekin bateratzeko; eta beste langile batzuei lanaldia, izatez, luzatzen dietela.

Horrenbeste traba eta murriketa direla eta, Justizia Administrazioako Zuzendaritza gero eta neketsuago ari da bihurtzen euskara ikastea. Izan ere, sailak ikasi nahi duten langileak aukeratu beharrean paratzen ditu: hizkuntza ala familia, hizkuntza ala lanaldia ez atzeratzea. Ez euskarak ez ikasten dutenek ere, ez dute merezi tratu txar hori; haren aldekoa eta sustatzailea dela harrotasunez aldarrikatzen duen administrazioak emandako tratu txarra, hain zuzen.

Urteak daramatza LABek eskaerak egiten sailari (betekizunak nasaitzea, bitarteko langileentzako aukera berdintasuna ezartzea...) euskara ikasteko aukerak zabaldu eta ikasle kopurua handitzeko asmoz; eskabideok alferrikakoak izan dira, baina. Hori gutxi balitz, ondokoa daukagu orain: ordutegia kontrolatzeko era barregarri/iraingarri baten bitartez, euskaltegira joatea oztopo lasterketa bihurtzen du Justizia Administrazioako Zuzendaritzak.

Eta horrela diogu, hasiak garelako langile batzuen protestak jasotzen: administrazioak presioa kentzea lortu ezean, klasera joateari uko egin behar izango diote. Esaterako, 15:30ean irten ezin daitezkeen pertsonak, dauzkaten erantzukizunek ez dietelako uzten; sailak euren lantokitik urrun kokatutako euskaltegia esleitu dien pertsonak ere badaude: ezinezkoa zaie 20 minutuan itzultzea eta ezin dezakete -edo ez dute nahi- behar duten gehiegizko aldi hori errekuiperatu.

Zuzendaritzaren errua izanik, ez dugu onartuko euskara ikastaroari borondatez uko egin diona langilea izan dela agertzea. Are gutxiago, euskara ikasteko eta erabilera sustatzeko neurriak indartu -erruz indartu ere- beharko lituzkeen administrazio batean.

Euskal Herria, 2014-10-03

Gure helbideak eta telefonoak

- Bilbo. Buenos Aires, 6, 5. solairua. 944016525 / lab.b@aju.ej-gv.es
- Donostia. Kalkutako Teresa, 1-sotoa. 943004361 / lab.gi@aju.ej-gv.es
- Gasteiz. Gasteiz hiribidea, 18-4.a. 945004919 / junta-lab@aju.ej-gv.es

<http://justizia.labsindikatua.org/>

>justizia

